



## FUNTSEZKO INFORMAZIOA

### HIZKUNTZA:

Hitzaldi eta aurkezpen gehienak ingelesez emango dira. Hala ere, hitzaldi batzuk beste hizkuntza batzuetan ere eskainiko dira (euskaraz zein gazteleraz) Saio hauetarako, **aldibereko itzulpena** egongo da eskuragarri.

Gaztandegietara egindako bisitetan, bisita batzuk bertako hizkuntzan ere egin ahal izango dira. Talde antolatzaileak ahal duen guztia egingo du **parte-hartzaileak ahalik eta gehien itzultzeko eta laguntzeko**. Ziur gaude, **guztion laguntzarekin, konponbide ona aurkituko dugula parte-hartzaile guztientzat**.

### DATAK:

2026ko urriaren 19tik 21era

### EGOITZA:

Kongresua **Markina-Xemeinen** izango da, ekitaldiak herriko hainbat lekutan egingo direlarik.

**Egoitza nagusia** Markina-Xemeineko **Musika Eskola** izango da, bertan egingo baitira saio teknikoak eta parte-hartzaileak ere bertan bilduko bait dira.

Tailer **praktikoak** (workshop-ak) Esneki Zentroko **instalazioetan egingo dira**, eta **gazta buffeta Markinako frontoian**.

Kokapen guztiak elkarrengandik oso gertu daude Markina-Xemeinen, oinez erraz iristeko moduan.

### BILKURAKO PREZIOA:

- Kongresu osoa (egun guztiak)
  - Prezio aurreratua: 260€ abuztuaren 31a baino lehen egindako ordainketagatik
  - Tarifa estandarra: 290€
- Egun bateko parte-hartzea: 170 €
- Hizlariak eta kongresuko babesleak: dohain.

Prezioak honako kostu hauek barne hartzen ditu:

- Gaztandegietara bisitak
- Hitzaldiak
- Lehen eguneko afaria
- Bilkurako hiru egunetako bazkaria



- Kafe etenaldiak kongresuan zehar
- Produktuen dastaketa eta gazta buffet-a
- Tailerrak (Workshop)
- Durangoko elkargunetik irteten diren autobusak: 1. eguneko gazta-ibilbideetara, 1. eguneko afarira, eta Markinan egingo diren jardueretara 2. eta 3. Egunetan

Izena emateko kuotak ez du barne hartzen ostatua edo kongresuaren programa ofizialean jasota ez dauden beste zerbitzu batzuk.

## INFORMAZIO PRAKTIKOA ETA TURISTIKOA

<https://tourism.euskadi.eus/en/>

<https://www.bilbaoturismo.net/BilbaoTurismo/en/tourists>

<https://sansebastianturismoa.eus/en/>

<https://www.turismodurango.net/en/home>

<https://www.leaartibaiturismo.com/en>

<https://markinaxemeinturismoa.eus/es/>

<https://www.artzai-gazta.eus/es/>

<https://esnekigileak.eus/es/>